

GURE OLERKARIAK ZUBIMENDI-REN AZKEN NEURTITZAK

Euzko Deya. La Voix del basques. 195. zenbakia, Paris 1940ko urtarrilak 30.

Euzko deya-ren irakurle zintzoak eztira aztu Zubimendi'tar Joseba Donostiar olerkari aundi aiparagiatzaz. Beste ainbat aberkideak bezala etxez kanpo eman zituen azken arnasak.

Bere izean ta bere euskal lan txalogarria oroitzeko, bere azken olerkiak argitaratzea baño egokiagorik ez deritzaigu: au da gaur bezela egiñ genezaioken omenik onena.

Zer gudari kementsua galdu duen euskerak!

Ona emen Zubimendi-ren (G.B.) alargunak eskuratu dizkigun azken lan eztiak:

BEGIRA ZAIDAZU

Ituna daukat biotzean
Bakartasuna det nik laguna,
ene! Zori txar beltzean
ez det arkitzen nik kutuna.

Orla zori txarrean
betiko
nekean
nagusi det ituna
iñork maitatu ezean
Zuk bakarrikan
ene maitea
boitza pozten didazu
irripartxo bat neri!
azaldu zuk maiteki
begiak maitasunez
nigana bira ditzazu
arren kutun
maite orrek
begira zaidazu.

NIRE KUTUN

Guazen biok esku eman da
zelai eder loretsura
liliak gure zai daude
guazen ba usaitzera.
Mitxiliikak antxen dabiltz
arin egaz jolasean
margorikan politenak
dituzte ego gainean.

Goazen alkaturikan
biok gogo batez
ludia gurea da
maiterik biotzez,
zeru urdiñ ederra
daukagu irri parrez
etorkizuna berriz
guretzat itxaro alaiez.

Maitasun ezia
degu biontzako
maite nazazu
biotz osoaz betiko
elkar maitatuz
gera beti biziko.

Nire kutun
bizia zu era
gau eta egun
maitasun bera
zugatikan det
lillura ona
maiterikan det
zoriona.

MAITE LUR NEREA

Urre erraieko lurak dira
itxas zabalaren bestaldean
aiek utzirik nire errira
nator zori onean.

Gurasoak eta aideak
Nire zai dauzkat basetxean,
a! zer laztan estisuak
berak arkitzean

Nik ikusi nai ditut
euskaldun mendiak.

A bai!
zelai orlegi naro
ba basetxe zuriak
agurtu bear ditut
nik nekazariak
eta mendian daudezten
artzai eta ardiak.

Biziko atsegin iturri
nere sorleku pozkillea
lur biran zu añarorikan
ezin leike izatea.

Etzaitetz bada arritu
ni emen gelditzea
laxter arkituko det

dertan emaztea
orla izan dezaten
beti maite lur nerea.

Ohar biografikoa:

Joseba Zubimendi 1898ko martxoaren 12an Donostian jaio zen. Olerkari ezaguna oso goiz hasi zen bere poemak *Euskal Esnalea*, *Argia*, *Euzkadi*, *El Dia* eta beste publikaziotan argitaratzen. Gerra hasi baino lehen bi liburu argitaratu zituen: *Olerkiak* (1932) eta *Zumalakarregi, poematxoak* (1935). 1936an Lapurdiko Kanbo herrian erbesteratu zen eta bertan 1939ko irailaren 29an hil zen.